



Israelgo okupazioak Gazako eta Zisjordaniako garbiketa etnikoaren kanpainak eragindako gerra genozidaren aurrean, Palestinako herriak bere existentzia mehatxatzen duen setioa jasaten baitu, Palestinako Nekazaritza Lan Komiteen Batasunak – UAWC nazioarteko laguntza-kanpaina bat abiarazi du.

Ekimen hau nazioarteko komunitateari dei egitea da, elkartasunerako premiazko deia, bonbardaketek eta suntsipenek kaltetutako milaka pertsoneri elikagaiak, ura eta bizitzarako funtsezkoa dena emateko, horrela, potentzia okupatzailearen krimenak gogorrak izan arren, herriaren erresistentzia eta lurraldean irautea lagunduz. Kanpaina hau laguntza-keinu bat baino gehiago da; herri bat desagerraraztearen aurka agertzea da; palestinarren duintasuna eta bizitza planeta honetako beste edozeinenak bezain sakratuak direlako ustean oinarritutako testigantza da. Munduko jende askeengana jotzen dugu atsekabetuen ahotsen berri emateko eta batasun- eta babes-mezu bat helarazteko, borroka honetan bakarrik ez daudela esateko.

Palestinatar herriak aurrekaririk gabeko bidegabekeria jasaten du eta munduaren askatasunaren defendatzaileak bere ondoan egotea espero du. Mundu osoan entzun behar den giza askatasun eta duintasunaren mezua da hau.

Nazioarteko kanpaina hau Palestinako Nekazaritza Lan Komiteen Batasuna – UAWCtik abiatzen dugu, mundu osoko bazkide eta aliatuen koalizio batekin batera. Kanpaina honetan hartu duten konpromisoak gure deia indartzen du, sufrimenduaren marea babes eta elkartasun olatu bilakatzeko helburuarekin.

Israeldar okupazioak 2,3 milioi palestinarren aurkako gerra negargarrian gosea larria gisa erabili izana gizateriaren aurkako krimena da, eta honek ekintza global bat eskatzen du, errudunek mozerroa kendu arazteko eta erantzuleei ardurak exijitzeko.

Elkarrekin, askatasunaren eta burujabetzaren alde borrokatzen ari gara, Palestinako haurrak etorkizuneko aukera berberekin eta mundu osoko haurrek duten bake berarekin bizi ahal izango diren etorkizunaren alde.